

URAK DAKARREN BIZIA



Sarrera:

Dibulgazio-Artikulu honetan Urumea ibaiak dakarren uraren kalitatea baloratu eta aztertzen arituko naiz; honetarako, hiriko uraren prozesua analizatzen ibili gara klasekideen artean, honen bidez, Añarbeko araztegira iritsiz eta hala prozesu horretaz gehiago ikasiz, gizakiok sortzen dugun zabor eta hondakin gehienak ezagutuz.

Gure ibaiaren inguruan dagoen bizi kalitatea neurtzen ere ikasiko dugu, izan ere, uraren kalitatearekin lotura zuzen bat osatzen du inguruko faunak ere.

Kalitate hori aztertzeko hainbat "puntu" analizatu zein zehaztuko ditugu eta zenbait osagai baliatuko ditugu: adibidez, PH-a, uraren gardentasuna, bertako bizidun kopurua, inguruko landareria, autofrizazioa dagoen hala ez...

Ibaiak oso garrantzitsuak dira, ez bakarrik naturaren osasunari begira, gure bizitzetan ere. Gero eta gehiago ikusten dugu ibaiak zikindu egiten direla, batez ere industrializazioaren, nekazaritza kimikoekin eta hondakinak zuzenean botatzeagaren ondorioz. Horrek guztiak kalte egiten dio ingurumenari, eta, gainera, gure osasunerako arriskutsua izan daiteke.

Informazioa



- **"Donostiak** indize ezin hobeetan jarraitzen du uraren eta airearen kalitateari dagokionez, hiriko berdeguneen gainazalean. Hiriak hornitzen duen uraren kalitateak ezin hobia izaten jarraitzen du: % 99,86ko analisi gogobetekoak".
- **Urumeako uraren kalitatearen azterketek ibai-ahotik** gertuen dauden zonetan ingurumen-helburuak gero eta hobeak direla erakusten dute.
- **Ibaiaren erdialdean**, Loiola eta Santa Katalina zubien artean, egindako analisiek erakusten dute uraren kalitate-indizeek behera egiten jarraitzen dutela.
- **Ur-kontsumoa**, guztira, 204 litrokoa da pertsonako eta eguneko, eta 129 litrokoa da pertsonako eta eguneko etxeko mailan.
- **Hiriko airearen kalitatea:** Airearen kalitate "oso ona" edo "ona" izan den egunak % 93ra iritsi dira Puiko estazioan, % 92ra Tolosa hiribideko estazioan, % 91ra Añorgan, % 87ra Zubietan eta % 86ra Ategorrieta eta Easo estazioetan.



*Karabel auzoa, Hernani: Urumea ibaia.

KONTUZ!



Datu hauek guztiek mezu positiboak besterik ez dizkigute eskeintzen (akaso beste garai batzuetan uraren kalitatea oso ona baitzen), halere, nik begiak ireki nahi nizkizueke, URUMEA ibaia, batez ere, HERNANIN dextente kutsatua dago!



Artikulu honetan zuek ibaien kutsaduraz haratago ikusteko, taldetan eginiko ikerketetan eta hauei esker eskuratutako datuetan oinarritu naiz:

Nitratoak	Fosfatoak	pH	Amoniakoa
0-4 ppm: ez kutsatua	0 ppm: Ez kutsatua	4-6: azidoegia	0 ppm: Ez kutsatua
5-40 ppm: onargarria	1 ppm: onargarria	7-8: onargarria	1 ppm: onargarria
>40 ppm: ez onargarria	2-3 ppm: Kaxkarra	9-11: basikoegia	>2 ppm: ez onargarria
	>4ppm: Txarra		



Gure ikerketa egin ondoren honako emaitza hauek atera zitzaizkigun, ibaietako bi zatietan bereiztuta. Goiko taularekin alderatuta jakin dugu emaitza egokiak hala apalak izan diren.

	Elorrabi	Karabel
Nitratoak	Oppm: (emaitza arraroak)	Oppm (emaitza arraroak)
Fosfatoak	1ppm	—
pH	8	7
Uhertasuna	Gardena-normala	
Amoniakoa	emaitza arraroak (txurixka)	emaitza arraroak (horia)
Bakterio koliformeak	Bakterio gehiegi	
Uraren tenperatura	11°C	

ZUEN LAGUNTZA BEHAR DUGU!

Azken batean, uste dut, gure uren kalitate gorena mantentzeko denok esku hartze txiki bat egin behar dugula, esan bezala, kalitatea mantendu zein hainbat gunetan kalitatea hobetzeko.



Denok batera, taldean hainbat emaitza lor ditzakegu, gure ibaiaren kalitate hoberena, herrikidetza eta parte hartzen ikastea. Lan gisa ikusten duguna, jolas eta ikasketa moduan har dezakegu, gure inguruak ezagutuz eta guk dugun bizi kalitatea, ibai eta honen inguruko faunari (animali eta landareei) "oparitzeko".

Ibaiein eta inguruko bizidunen bizitza **gure esku dago**, eta bizikidetza bidez **denon ongizatea bermatu dezakegu!**



Egilea: Jare Huegun Etxebeste